




ESPACIOS PARA HABITAR




ESTIBALIZ SÁDABA MURGUÍA


Centro Cultural Montehermoso 2022
























HIRI GORPUZDUNA/GORPUZGABEA. Maite Luengo

Habitatzea bizitzearen, espazioa hartzearen eta bertatik igarotzearen sinonimoa da. Gorputz guztiak okupatzen dute hiri-espazioa, baina horietako bakoitzak modu desberdinean egiten du, beste aldagai batzuen artean, generoaren arabera. Hain zuzen ere, hiria interes bereziko gaia izan da ikasketa feministean. Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran jada, Teresa del Valle antropologoak hiria errepresentazio-modu gisa aztertu zuen, generoaren ikuspegitik, eta emakume sortzaileen arteak espazio publiko horretan zuen presentzia. Estibaliz Sádabak, berriz, alderantzizko bidea egin du: bere artea hirian kokatu beharrean, hiria bera da galerian sartzen dena.

Askotariko bitartekoak erabili dira —bideoa, argazkia, collagea, marrazkia— erakusketako lau espazioetarako berariaz pentsatutako instalazioak sortzeko. Aretoei plaza deitu geniezaieke, horietako bakoitzak duen topagune-balioa azpimarratzeko. Elkarren artean hitz egiten duten lanentzat ez ezik, baita emakumeentzat ere, haien bisitatzean geure buruari galdetzen baitiogu nola habitatzen dugun espazio publikoa. Plaza, *enparantza, plaza, piazza edo forum*, erakusketa honetako piezak sortzeko prozesuan artistak berak korritu dituen lekuei dagozkien hizkuntzetan: Bilbo, Alacant eta Erroma. Azken hiri horrentzat hala izendapen garaikidea nola berariaz Antzinako Erroma gororazten duen izendapena erabili ditut, artistak aztarnei esker antzeman ahal izan baitu hura.



Erakusketa honen bidez egiaztatu dezakegu Sadabak beste urrats bat egin duela bere lan-ildo nagusietako bitan, ibilbide bakoitze-rako inflexio-puntu bat eskainiz. Alde batetik, emakumeen eta espazioaren —kasu honetan, espazio publikoaren— arteko dinamikak ikertzen jarraitzen du. Aurreko lanetan, emakumeek etxeko espazioarekin duten lotura aztertu du kritikoki, *Ideologías domésticas* (2007) edo *Espacios en devenir (hacia una distopia doméstica)* (2013) bideoen bitartez; doktore-tesia ere gai horren inguruan egin zuen: *Espacio doméstico, cuerpo domesticado* (2017).

Bizitzeko espazioak proiektuan, espazioaren okupazioa etxeaz haratago doa, eta kaleetara zabaltzen du bere lurraldea. Ekintza *desdomestikoa* da, Sadabak berak aurreko proiektu batean (2021) izenburu gisa erabilitako terminoa maileguan hartuta, bildumatutako eta berreraikitako hiri-zatiak diren heinean. Estolda-estalkiak, hiriko azalaren gaineko orinak, protagonista bihurtzen dira. Haien testuren azterketaren bidez, artistak esplorazio estetiko bat egiten du, konposizioak sortzen eta horiek hormen gainean erakusten; hartara, berezko duten horizontaltasuna hautsi eta etxekotutako koadro edo friso bilakatzen dira.

Bestetik, Sádabak bigarren lan-ildo bat jorratzen jarraitzen du: emakumeen errepresentazioa “emakumeen prentsan”. Argitalpen horiek, era berean, espazio fisikoko kaleekin pareka daitezke; izan ere, emakumeen gorputzek orriatik desfilatzen dute, imajinario kolektiboaren parte bihurtzen den bi dimensioko espazio publiko batean. Lan-ildo horretan sartzen dira 6% bideoa (1999) eta *Intersticios* argitalpena (2017). Ohiko muntaketez gain, zeinetan aldizkarien ebakinatik abiatuta gorputz-irudi kalidoskopikoak sortzen baitira, figuraziotik harrigarriro urruntzen den proposamen bat aurkituko dugu erakusketa.

Lehen begiratuan, tamaina desberdinako mapa estratigrafikoak direla dirudi. Lerro urdinak ikusten ditugu, bai landare-paperean marraztuak, bai horma zuriaren gainean hedatzen. Jatorria eta esanahia antzematen ditugunean, konturatzen gara aldizkarietako emakumeek janzten dituzten jantzien tolesak direla. Tolesdurekiko interes hori *Subversiones*







erakusketan (2021) ere hautematen zen; origamian oinarritutako lan hartin, artistak berak tolestutako aldizkari-orrietatik ateratako irudiak handitzen zituen. Horrela, esan dezakegu errepresentazio-estrategia zeharreria dugu la aurrean. Haizea Barcenilla artearen historialariak duela urte batzuetatik erabiltzen du kontzeptu hori, gorputzak zeharka irudikatzeko estrategia izendatzeko.




Bi lan-ildoetan, bereziki interesgarria da ia ez dela gorputzik ikusten. Instalazioetan agertzen direnean, aurpegirik ezak anonimotasun sistematikoa dakar. Nortzuk dira emakume horiek? Esan dezakegu artista ikusgai eta ikusezin denarekin jolasten dela. Badakigu gorputz horiek hor daudela, artistaren lagun eta lankide diren emakumeen ibilera ikusten dugu, zenbait lekutatik oinez igarotzean beren zangoak grabatu baitzitzenten, inguruaz atsegin hartzen ari diren *flanêuse* edo paseatzaile bihurtuta. Era berean, bidelagun dugu artistarentzat erreferente garrantzitsua den *El Viaje de Egeria* liburua, non bierzotarrak IV. mendean egindako erromesaldia kontatzen baita. Artista bera ere agertzen da autoerretratu batzuetan, baina aurpegirik gabe. Adibidez, irudietako batean bizkarra emanda ikusten dugu, zartagin batek —etxeko ingurunea iradokitzen duen elementua— aurpegia estaltzen diola.

Hala ere, presentzia handiena duten gorputzak tatuajeen argazkietakoak dira. Bertan, emakumeak bizkarrez agertzen dira, azalean espazio publikoarekin lotutako elementuak grabatuta dituztela. Giottok margotutako elementu arkitektonikoetan inspiratutako eta estolda garaikideetatik eratorritako diseinuak dira, espazio publikoaren sinbolo gisa interpreta ditzakengunak. Tatuajeak, erakusketako bisitariok bezala, iragaitzazkoak dira: batzuk desegin egiten dira eta beste batzuk gainjarri, korritzen ditugun kaleak bezala.

Hala, hiriaren eta gorputzaren zatiengatik artean, artistak bere ibilbide bereziaren konstelazioa aurkezten digu, eta bertan noraezean ibiltzera eta bilbearen zati gisa irudikatzera gonbidatzen gaitu. Geu al gara espazioan barrena ibiltzen eta hura okupatzen dugunak, hiri berezi hori gorpuzten, ala hiria alda gure gorputzaren zati bihurtzen dena?











LA CIUDAD (IN)CORPÓREA. Maite Luengo

Habitar es sinónimo de vivir, tomar el espacio y transitarlo. Si bien todos los cuerpos ocupan el espacio urbano, cada uno de ellos lo hace de diferente manera, entre otras variables, en función del género.

Precisamente, la ciudad ha sido un tema de especial interés en los estudios feministas. Ya a finales de los años noventa, la antropóloga Teresa del Valle analizaba la urbe como modo de representación en clave de género y la presencia que el arte de las autoras tenía en ese espacio público. En el caso de Estibaliz Sádaba, la artista presenta un recorrido inverso, en lugar de situar su arte en la ciudad, es la propia ciudad la que entra en la galería.

Encontramos en la exposición un despliegue de medios variados -vídeo, fotografía, collage, dibujo...- para crear instalaciones específicamente pensadas para los cuatro espacios de la exposición. Podríamos denominar las salas como plazas, para así recalcar el espacio de encuentro que supone cada una de ellas. No sólo para las obras que dialogan entre sí, también para las mujeres que, al visitarlas, nos hemos cuestionado cómo habitamos el espacio público. Plaza, *enparantza*, *plaça*, *piazza* o *forum*, idiomas que corresponden a los lugares que la propia artista ha transitado en el proceso creativo de las piezas de esta muestra: Bilbao, Alicante y Roma. Me refiero a esta última ciudad, tanto en su versión contemporánea, como en la referente a la Antigua Roma intencionadamente, pues ha sido accesible para la artista gracias a sus vestigios.



Podemos constatar que, mediante esta exposición, Sádaba da un paso más en dos de sus principales líneas de trabajo, ofreciendo un punto de inflexión para cada uno de los itinerarios. Por una parte, continúa investigando las dinámicas entre las mujeres y el espacio, público en este caso. En obras anteriores ha revisado críticamente la relación de las mismas con el espacio doméstico, a través de vídeos como *Ideologías domésticas* (2007) o *Espacios en devenir (hacia una dis-topia doméstica)* (2013); además de realizar su tesis doctoral *Espacio doméstico, cuerpo domesticado* en torno a este tema (2017).

En el proyecto *Espacios para habitar*, la ocupación espacial trasciende el hogar y hace de las calles su territorio. Una acción *desdoméstica*, tomando prestado el término utilizado como título en un proyecto anterior por Sádaba (2021), dado que nos encontramos con fragmentos de ciudad recopilada y reconstruida. Las tapas de alcantarilla, lunares sobre la piel de la ciudad, se convierten en protagonistas. Mediante el estudio de sus texturas, la artista realiza una exploración estética, creando diversas composiciones que se muestran sobre las paredes, rompiendo con su habitual horizontalidad y convirtiéndose así en cuadros o cenefas que aparecen domesticadas.

Por otra parte, la segunda vía de trabajo que continúa explorando Sádaba, es la representación de mujeres en la “prensa femenina”. Estas publicaciones sirven a su vez como una calle paralela del espacio físico, pues por sus hojas desfilan cuerpos femeninos, en un espacio público bidimensional que pasa a formar parte del imaginario colectivo. Esta línea de trabajo, la componen obras como el vídeo 6% (1999) o la publicación *Intersticios* (2017). Junto con los montajes que acostumbra a realizar, en los que crea imágenes corporales caleidoscópicas a partir de recortes de revistas, encontramos en la presente exposición, una propuesta que se aleja sorprendentemente de lo figurativo.

A primera vista parecen ser mapas estratigráficos de diferentes tamaños, vemos líneas azules dibujadas tanto en papel-vegetal, como extendiéndose por la misma pared blanca. Cuando accedemos al ori-





gen y significado, nos damos cuenta de que se trata de pliegues de las prendas que visten las mujeres en las revistas. Este interés por los pliegues se percibía también en el trabajo basado en el origami de la exposición *Subversiones* (2021), donde la artista ampliaba imágenes de páginas de revistas dobladas por ella misma. De esta manera, podemos afirmar que encontramos una estrategia de representación translúcida, concepto que lleva unos años empleando la historiadora del arte Haizea Barcenilla, que permite representar los cuerpos de manera indirecta.

En ambas líneas de trabajo, resulta especialmente interesante la casi completa ausencia de los cuerpos. Cuando aparecen en las instalaciones, la falta de los rostros conlleva un anonimato sistemático. ¿Quiénes son esas mujeres? Podemos afirmar que la artista juega con lo visible y lo invisible. Sabemos que esos cuerpos están ahí, vemos el caminar de amigas y compañeras de la artista que grabaron sus piernas marchando por varios lugares, convertidas en *flanêuses* o paseantes que se deleitan con su entorno. Igualmente, nos acompaña un importante referente para la artista, el libro *El Viaje de Egeria*, donde se cuenta el viaje realizado por la berciana, quien escribió su viaje de peregrinaje en el siglo IV. Incluso aparece la propia artista en algunos autorretratos, pero también sin rostro. Por ejemplo, en una de las imágenes la vemos de espaldas y con una sartén -elemento que remite al entorno doméstico- cubriendole la cara.

Sin embargo, los cuerpos con mayor presencia son aquellos presentes en las fotografías de los tatuajes. En ellas, aparecen mujeres de espaldas, mostrando elementos del espacio público grabados en su piel. Son diseños derivados de elementos arquitectónicos inspirados en los pintados por Giotto y de alcantarillas contemporáneas, que podemos interpretar como símbolos del espacio público. Los tatuajes, al igual que nosotras, visitantes de la exposición, se encuentran en tránsito: algunos se disuelven y otros se superponen, como las calles que recorremos.

Así, entre fragmentos de la ciudad y del cuerpo, la artista nos presenta una constelación de su particular periplo y nos invita a vagar e imaginarnos como parte del entramado. Somos nosotras las que transitamos y ocupamos el espacio, corporeizando esta particular ciudad, ¿o es acaso la ciudad la que pasa a formar parte de nuestro cuerpo?







ESPACIOS PARA HABITAR

Estibaliz Sádaba Murguía

Centro Cultural MONTEHERMOSO Kulturunea
Proiektu artistikoak 2021/Proyectos artísticos 2021

Data · Fechas

2022ko irailaren 23tik azaroaren 20ra
Del 23 de septiembre al 20 de noviembre de 2022

Argitaratzailea · Edita

© Vitoria-Gasteizko Udala
© Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Argazkiak · Fotografías

Estibaliz Sádaba Murguía
© Stuart MacDonald

Testua · Texto

© Maite Luengo

Diseinu eta maketazioa · Diseño y maquetación

Estibaliz Sádaba Murguía

Itzulpena · Traducción

Vitoria-Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Eskerrak.Agradecimientos

Fundación Bilbaoarte

Courtesy of **MoroRoma.com** iconographis archive
Gonzalo de la Puerta, Amaia Arzoz, Beatriz Carvajal

Performance

Blinktatto.jpeg

Elisa Villota

Laura Egido

ISBN: 978-84-96845-85-5

LG:



montehermoso



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

